LEGAZPIKO UDALA

ELURTEETAN ETA IZOTZALDIETAN JARDUTEKO PLANA



2022ko azaroa

1. PLANAREN HELBURUAK

Elurteetan eta Izotzaldietan Jarduteko Plan honen helburuak honako hauek dira: dauden baliabideak eraginkortasunez antolatu eta koordinatzea, laguntza hobea emateko beharrak aztertzea, herritarrak babestea eta Legazpiko udalerrian gerta daitezkeen elurteei eta izozteei aurre egiteko esku-hartzea dimentsionatzea.

Elurteetan eta izotzaldietan jarduteko Plana da eta, beraz, haren helburuak dira elurraren eta izotzaren ondorioak murriztea eta bideak eta zerbitzurik premiazkoenak berrezartzea, gure udalerria gelditu ez dadin.

Horretarako, egin behreko lanak planifikatuko dira:

- Ahal den neurrian, eraikin publikoetarako eta saltokietarako sarbide nagusia bermatzeko, haien funtzioak behar bezala bete ditzaten: ikastetxeak, laguntza-zentroak (osasun-zentroa, egoitza, eguneko zentroa), udal zerbitzuak eta zerbitzu publikoak (tren-geltokia, autobusak, hilerria, hondakinen bilketa,….).
- Bide nagusietan eta gehien erabiltzen diren ibilbideetan zirkulazio egokia ahalbidetzeko, bai erdialdean, bai periferian, eremu urrunenak isolatuta gera daitezela saihestuz.
- Herritarrei egoeraren bilakaeraren berri emateko.
- Lehentasunezko arretatzat jotzen diren gainerako egoera guztiak konpontzeko.
- Oinezkoentzako bideak garbitzeko, erantsitako planoetan zehaztutako lehentasunen arabera.

2. PLANAREN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

Honakoak izango dira plana zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratuko direnak:

- Alkatetza
- Udal arkitekto teknikoa
- Udaltzainburua
- Obretako brigada-burua

Alkatetzak krisi-mahai bat eratzeko eskatu ahal izango du, elurtearen edo izoztearen aurreikuspenen edo garrantziaren arabera.

3. ANTOLAKETA

3.1. Premien estaldura

Urtero, azaroan, honako zeregin hauek egingo dira:

Alkatetza	Herritarrei informazio egokia emateko bitartekoak aztertu, bai eta herritarren jarduera hobeto garatzeko beharrezkoak diren bandoak eta ebazpenak eman ere.
Udaltzainburua	SOS DEIAKekin harremanetan jarri, meteorologia-abisuak zein langileri bidali behar zaizkion eguneratzeko.
Obretako brigada-burua	Urgarrien stocka egiaztatu (gatza eta gatzuna), izotz edo gogortutako elur-plaken eraketari aurre egiteko.
	40 tonako gatz-stocka ziurtatu, paper-fabrikako aparkalekuan gordeko dena.
	Plan honetan parte hartzen duten Udaleko zerbitzuen hornidura eta esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko beharrezkoa den gutxieneko ekipamendua aztertu.
	Udal langileak eta baliabideak mobilizatzeko jardunbidea aztertu.
Arkitekto teknikoa	Beharrezkoa bada, elurra kentzeko makinen eta oinezko taldeen oinarrizko ibilbideak eta lan-eremuak eguneratu eta azterlan honi erantsiko zaizkien planoetan jaso.
	Partikularrekin eta makineria duten enpresekin hartuta dauden akordioak eta sinatutako kontratuak aztertu.
	Partikularrak edo kontratatutako enpresak mobilizatzeko jardunbidea aztertu.
	Lan mota horretarako aldi baterako langileen kontratazioa aurreikusi, bai eta beharrezko ekipamendu-hornidura ere.
	Ekintza guztien koordinazio egokia aztertu inplikatutako zerbitzu eta erakundeekin, lanak eta ahaleginak batuz eta esku-hartzeen zuzendaritza aginte-postu bakar batean zentralizatuz.

3.2. Herritarrei gatza-gatzuna hornitzea

Gatza edo gatzuna izotza urtzeko erabiltzen da; beraz, izotza edo elur izoztua dagoenean erabiltzea gomendatzen da.

Gatza udal-langileek erabiliko dute. Herritarrei eta enpresei LARRIALDI-EGOERETARAKO BAKARRIK emango zaie eta nola erabili behar den adieraziko zaie.

Baserrietara sartzeko landa-bideen kasuan, bertako biztanleek telefonoz abisatu beharko diote Udalari honako zenbaki hauetako batera deituz:

- **010 / 943 737030, atelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara**
- **092 / 943 109662, udaltzaingoa**

Herritarrak hornitzeko, gatz-zakuak jarriko dira Lanaren Hiribidea 5eko brigadaren biltegian.

4. JARDUTEKO MODUA

Jarduteko modua bi fasetan banatuko da:

Prebentzioa	Fase hau barnealdean elurteak eta izozteak 700 metrora egitea aurreikusten denean aktibatuko da.	
Esku-hartzea	Alerta-fasea	Fase hau barnealdean elurteak edo izozteak 500-700 metrora egitea aurreikusten denean edo izozte ahulen alerta jasotzen denean aktibatuko da.
	Mobilizazio-fasea	Fase hau Elurteetan eta Izotzaldietan Jarduteko Planaren Zuzendaritzak eta Koordinazioak erabakiko duenean aktibatuko da.

4.1. Baliabideen mobilizazioa

Parte meteorologikoa jaso eta beharrezko kontsultak egin ondoren, Elurteetan eta Izotzaldietan Jarduteko Planaren Zuzendaritzak eta Koordinazioak plana aktibatzea proposatuko du.

Herritarrak informatu	Informazio oharra	Informazio-oharra gertaeraren inguruabar zehatzak azalduz eta herritarrei aholkuak emanez.
	LegazpiON	Abisu-mezuak bidaliko dira jasotako alertarekin.
Mobilizazioa	Arkitekto teknikoa / Brigadako arduraduna	Udal langileekin, partikularrekin eta kontratatutako enpresarekin koordinatu jarduera antolatzeko.
		Udaltzaingoari martxan jarritako jarduketa jakinarazi.

4.2. Jarduteko modua izotzaldietan

Izozteen kasuan, espaloietan eta oinezkoen pasabideetan jarduteko gune kritikoak planteatzen dira, udal-zerbitzuen irizpideei jarraiki.

Zonalde bakoitzeko lantaldeek garbituko dituzte haien eremuan dauden elementu nagusi horiek, betiere bidearen erabilera kontuan hartuta eta izoztea gertatuko den bakoitzaren baldintza meteorologikoen eta lan-erritmo posiblearen arabera.

Udal arkitekto teknikoak koordinatuko ditu egin beharreko lanak.

4.3. Hirigunean jarduteko modua elurra egiten duenean

Udalerria eremuka banatuko da eta bakoitzean lantalde bat arituko da. Lehentasunezkoak izango dira:

- Aldapak eta maldak
- Eskailerak
- Ikastetxeak
- Santikutz egoitza
- Osasun-zentroa
- Igogailu publikoak
- Ibilgailuen eta trenbideen trafikoko bide nagusiak
- Merkataritza-jarduera dagoen eta banku-erakundeak dauden bideak
- Udaletxea
- Larrialdi-deiak

Horrela, lehenik eta behin, lehentasunezko puntu eta ibilbideei helduko zaie, eta, ahal den neurrian, planean zehaztutako ibilbide guztiei.

Hala ere, ibilbide batzuk bereizi egin dira, eta, duten inpaktua dela-eta, bereziki garbitu behar dira ordu eta egun jakin batzuetan; horixe da, esaterako, industria-ibilbideen kasua.

Udalerriko landa-eremuak garbitzeari eta bertako ibilbideei dagokienez, jendea bizi den eremuetara sartzeko bideak garbituko dira. Landa-eremuko bideak pertsona partikularrekin egindako hitzarmenen bidez garbituko dira eta, horretarako, ibilgailuetan elurra kentzeko palak utzi zaizkie. Eranskinean zehazten da eremu bakoitza.

Gatza udal-langileek erabiliko dute. Herritarrei eta enpresei LARRIALDI-EGOERETARAKO BAKARRIK emango zaie eta nola erabili behar den adieraziko zaie.

Landa-inguruneko baserritarako sarbideetan gatza botatzeari dagokionez, eskariaren arabera egingo. Horretarako Legazpiko Udalari deituko zaio aldez aurretik eta arrazoitu egingo da.

1. Taldea: Laubide eta Urtatza

1. Domingo Agirre eskolarako eta igogailurako sarbideak
2. Eroskiren inguruak
3. Hegialdeko goialdea
4. Urtatza eta Laubide auzoetako gainerakoa



2. Taldea: San Juan auzoa

1. Haurreskola
2. Atarietara sartzeko aldapa



3. Taldea: Arantzazu auzoa - Laubide bakoitiak

1. Haurreskola
2. Igarobide nagusiak
3. Eskailerak



4. Taldea: Santikutz egoitza eta La Salle-Fleming kaleak

1. Santikutz egoitzarako sarbidea
2. Meazti Etxea
3. La Salle kalea eta BMko aldapa



5. Taldea: San Ignazio - San Martin

1. Pasabideko eskailerak, ondoren gainerakoa
2. Haztegi ikastolaren atzealdeko eskailerak



6. Taldea: Behealdea eta herrigunea

1. Espaloiak eta oinezkoen pasabideak
2. Eskailerak



7. Taldea: Domingo Agirre plaza - Juanastegi kalea

1. Goiko aldapako eskailerak
2. Behealdean, igogailuetara doazen pasabideak



8. Taldea: Bikuña

1. Osakidetza
2. Bikuña - Gaztetxeko aldapa



MAKINERIA

Makineria: Elur asko eginez gero, hirigunea honela banatuko da:		
1.- udalerria 2 gunetan banatuko da, San Ignazio auzora doan aldapan (aldapatik)		
2.- udalerrian 3 gune bereiziko dira: lehen esandako bi guneak eta herrigunea. Honela:		
1. gunea Urtatza-Laubide San Juan 31-33	2. gunea San Ignazio, Itxaropen, Latxartegi, Fleming, Olaondo	3. gunea Behealdea eta Bikuña




LIMPIEZA NIEVE - MAQUINA 1
LEGAZPIKO UDALA
LIMPIEZA NEVADA
MAQUINA 1
09


LIMPIEZA NIEVE - MAQUINA 2
LEGAZPIKO UDALA
LIMPIEZA NEVADA
MAQUINA 2
10

4.4. Landa-eremuetan jarduteko modua elurra egiten duenean

Modu berean, udalerriko landa-eremuetan jendea bizi den guneetarako sarbideak garbitzeko plangintza bat egin behar da, elurteetan haiei eskainiko zaien arreta berandutu ez dadin.

Nekazaritza Zerbitzuak egin beharreko ibilbideak zehaztu ditu. Ibilbide horietan udalerriko landa-eremuetan dauden bide eta gune guztiak jasoko dira.

Gune bakoitzean hortza izango duen traktore bat egongo da. Traktoreak planifikatutako eremuei esleitzerakoan, makineriaren gidaria lan-eremuan bertan bizitzeari eman zaio lehentasuna.

Baliabide horiek automatikoki edo udal-langileek deituta aktibatuko dira eremu bakoitzean, elurragatiko arazoak sortzen hasten direnean. Era berean, eremu bakoitzeko arduradunak lanak noiz amaitzen dituen jakinaraziko du, dagokion lan-partea egiteko. Halaber, garbiketa egitea eragozten dion edozein istripu edo gorabehera jakinarazi beharko du.